SASKI JASOTZAILEA DUEN IBILGAILUA, HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU PUBLIKOETAKO UDAL BRIGADAK ERABILIKO DUENA, HORNITZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

1.- XEDEA

Baldintza Tekniko Partikularren Plegu honen helburua da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Publikoak Saileko brigadak erabiliko duen eta saski jasotzailea duen ibilgailua hornitzeko erosketa baldintzak zehaztea.

2.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

Jarraian zerrendatzen diren ezaugarri teknikoak gutxieneko baldintzak dira, hau da, nahitaezkoa da horietako bakoitza betetzea. Lizitatzaileek gutxieneko prestazio horiek hobetu edo handitu ditzakete, baina ezingo dituzte murriztu; murrizketa hori kontratua bertan behera uzteko arrazoia izango litzateke.

Ibilgailuak honako ezaugarri tekniko hauek bete behar ditu:

- IBILGAILU MOTA
  - Saski jasotzailea duen pick up ibilgailua.
  - Egoera: erabili gabeko ibilgailu berria, guztiz muntatuta eta erabiltzeko prest.
  - Gidatzeko beharrezko gidabaimena: B mota.
- PROPULTSIO-SISTEMA ETA EZAUGARRI MEKANIKOAK
  - Ardatz-kopurua: 2
  - Trakzioa: osoa, 4x4 edo 4x2 aukeratzeko hautagailuarekin.
  - Motorra: gutxienez 164 ZP edo 120 KW-ko potentzia duen diesel motorra, indarrean dagoen isurketei buruzko araudia betetzen duena (Euro 6 edo handiagoa).
  - Abiadura-kaxa: eskuzkoa.
  - Udalerrian 7 orduko etengabeko lanerako autonomia nahikoa duen erregai-tanga.

- ZARATA-EMISIOAK
  - UN-R 51.03 zarata-araudiaren 2. maila beteko du.
  - Zarata murrizteko neurri gehigarriak izatea baloratuko da.
- KABINA
  - Kolore zuria, Hernaniko Udalak emandako logotipoa binilizatzeko.
  - Bi eserleku izango ditu.
  - Berokuntza-sistema.
  - Aire girotuko edo klimatizazioko sistema.
  - Esku libreko bluetooth irrati-sistema.
  - Atzeko ikusmen-kamera, koloretako monitorearekin.
  - Kristal-jasogailu elektrikoak.
  - Barruko argiztapena.
- BESTELAKO OSAGARRI EDO GEHIGARRIAK
  - Erreminta-kaxa eta material-kaxa, txasisean, sarrailarekin edo giltzarrapoaren bidez ixteko sistemarekin.
  - Trakziorako kakoa atzealdean.
  - Kanpoko ispiluak erregulazio elektrikoarekin.
- BESOA ETA SASKIA
  - Beso artikulatu eta teleskopikoa.
  - Gehienezko lan-altuera: 15 metro, gutxienez.

- Saskiaren eta lurraren arteko altuera: 13 metro, gutxienez.
- Horizontalean gehienezko irismena: 7,5 metro, gutxienez.
- Zuntzez egindako saski itxia, bi pertsonarentzako edukierarekin.
- Lan eremu guztian jaso dezakeen gehienezko zama: 225 kg, gutxienez.
- Dorrea biratzeko gaitasuna: 420º, gutxienez
- Saskia biratzeko gaitasuna: 90º + 90º, gutxienez.
- Aginte bereiziak dituzten A+A motako lau egonkortzaile, efektu bikoitzeko zilindro hidraulikoek eraginda.
- Egonkortzaileentzako berme-plakak.
- Aginte elektro-hidrauliko bikoiztuak:
  - Saskian: proportzionalak, ergonomikoak eta doitasun handikoak.
  - Ibilgailuaren kabinan edo oinarrian, gutxienez 5 metroko kablea dutela.
- Saskia kontrolatzeko sistema elektronikoa.
- Egonkortasun-sistema automatikoa.
- Besoa irekitzeko eta jasotzeko LED bidezko edo antzeko laguntza-sistema.
- Larrialdietan besoa kontrolatzeko eskuzko aginte-postua.
- 220 V-ko elikadura hartunea txasian eta saskian.
- Segurtasuna:
  - Bi krokadura saskian segurtasun-arneserako.
  - Katu egonkortzaileak bildu ez izanaren ohartarazlea.

- Besoa goratuta dagoelaren ohartarazlea, bai ikusteko modukoa, bai entzuteko modukoa.
- LED seinaleztapen-argiak besoaren bi aldeetako egonkorgailuetan.
- Gainkargatik babesteko sistema.
- Larrialdi kasuan gelditzeko botoia.

- Hernaniko Udalak besoaren eta saskiaren kolorea aukeratu ahal izatea baloratuko da, baita eskainitako kolore kopurua eta aniztasuna ere.

- SEGURTASUN, IKUSPEN ETA ZIRKULAZIO SISTEMAK

  - Zirkulazioko eta laneko arriskuen prebentzioko arauekin bat datorren argiztapen-sistema homologatua.
  - Kabinaren gainean argi birakariak dituen LED argi-zubia, eragingailua kabinan duena eta pizte automatikoa duena, saskiaren mugimendu-hasierarekin.
  - Laneko argiak saskian, bat ezkerraldean eta bestea eskuinaldean, eragingailua saskian duela.
  - Atzerako martxako ohartarazle akustikoa, deskonektagarria.
  - Bereizgarri islatzaileak. Banda islatzaile zuri-gorria ibilgailuaren lau aldeetan eta saskian.
  - Positiboki baloratuko dira gidatzeko segurtasun-sistema gehigarriak: egonkortasuna erregulatzeko sistema, erreia aldatzeko detektagailua, nekeak eragindako alerta-sistema, trafiko-seinaleetarako laguntzailea, balaztatze-laguntzailea, etab.
  - Positiboki baloratuko dira saskia erabiltzeko segurtasun-sistema gehigarriak.

3.- ENPRESA ESLEIPENDUNAK BERE GAIN HARTU BEHARREKO KOSTUAK

Enpresa esleipendunak honako kostu hauek bere gain hartuko ditu:

- Ibilgailua Hernaniko Udalak adierazitako udal-instalazioetaraino garraiatzeko eta entregatzeko gastuak, plegu honetan adierazitako gutxieneko zehaztapenekin.

- Ibilgailuaren matrikulazioa kudeatzeko gastuak.

- Ibilgailuen Azterketa Teknikoa gainditu izanaren ziurtagiria lortzeko gastuak. Ibilgailua ibilgailuak eraberritzeko izapideak arautzen dituen 866/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritako ibilgailuen azterketa teknikora (IAT) aurkeztu behar bada, esleipendunaren kontura izango dira azterketa hori gainditzeko egin beharreko kudeaketak eta jarduketak.

- Autoak, besoak eta saskiak osatzen duten lan-ekipo edo lantaldea homologatzeko gastuak.

- Horniketa egiteko eman daitezkeen zerga eta karga mota guztiei dagozkien gastuak.

- Ibilgailuaren serigrafia/errotulazioa, Hernaniko Udalak emandako logotipoaren arabera, bai eta adierazten diren elementu islatzaileena ere.

- Plegu honetan adierazitako langileen prestakuntza egiteko gastuak.

- Ibilgailuaren mantentze-gastuak, plegu honetan ezarritako berme-aldian.

4.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Aldez aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa:

  Esleipena baina lehen honako agiri hauek aurkeztuko dira:

  - Fitxa teknikoak (ezaugarri berberak dituen ibilgailu baten fitxa teknikoaren kopia, fitxa komertzialarekin batera)

  - Lan-ekipoei dagozkien CE ziurtagiriak (ezaugarri bereko ibilgailuaren ziurtagiriaren kopia). Betetzen diren araudiak eta zuzentarauak zehaztuko dira.

  - Hernaniko udalerritik gehienez 60 km-ra dituen laguntza teknikoko zerbitzu eta tailerrei buruzko informazioa.

- Makinarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

  Makinarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

  - Aurreko atalean deskribatutakoaren arabera, ibilgailuari dagozkion jatorrizko agiriak.

- Ibilgailuaren homologazioari dagokion dokumentazioa.
- Ibilgailuak behar bezala kontserbatzeko izan behar duen prebentziozko mantentze-lanen plana.
- Mantentze-lanen check-list orriak.
- Tailerreko eskuliburu (mantentze-lanak) eta langilearen eskuliburu-liburua (erabilera) gaztelaniaz, bai ibilgailuarena, bai instalatutako elementu guztiena.
- Ibilgailuaren fitxa teknikoaren jatorrizkoa eta bi kopia (IAT txartela).
- Zirkulazio-baimena.
- Zigilatutako eta sinatutako bermea.

5.- IBILGAILUA ENTREGATZEKO EPEA ETA JASOTZEKO BALDINTZAK

Kontratua formalizatzen denetik, 6 hilabeteko epea izango du esleitzaileak ibilgailua entregatzeko.

Enpresa lizitatzaileek hobetu ahal izango dute hornidura-epe hori. Positiboki baloratuko dira ibilgailua 2025/12/31 baino lehen entregatzeko konpromisoa hartzen duten epe-murrizketak.

Ibilgailuarekin batera, lanean hasi ahal izateko beharrezkoa den dokumentazio guztia entregatuko da, aseguruak izan ezik. Enpresa esleipendunaren kontura izango dira ibilgailua jaso arte sortu daitezkeen gastu guztiak.

Era berean, zerbitzuko eta operazioko eskuliburu teknikoak, eta ibilgailuaren funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren tresna, osagarri eta erreminta guztiak entregatuko dira.

Ibilgailua jaso aurretik, altxaketa-lanak egingo ditu, erosketa-zehaztapenak betetzen dituela frogatzeko.

Probak gainditu ondoren, ekipoaren harrera-akta sinatuko da, eta, egun horretatik aurrera, bermealdia hasiko da.

Probak egiterakoan anomaliarik edo arazorik aurkituz gero, harrera-aktan zein diren adieraziko da eta haiek zuzentzeko epea zein den zehaztuko da.

6.- BERMEA

Enpresa esleipendunak hornitutako ibilgailua gutxieneko epe hauetan bermatu beharko du, ibilgailua jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, ibilgailuaren elementuaren arabera:

- Urte bateko berme osoa: ibilgailua, besoa eta saskia.

Enpresa lizitatzaileek berme-epe hori hobetu ahal izango dute, bai ibilgailua osatzen duen lantalde osorako, bai haren zati baterako. Horretarako, bermearen luzapenak baloratuko dira 5 urte arte.

Bermean, hornitutako ibilgailua eta haren piezak ez ezik, eskulanaren, joan-etorrien eta garraioen gastuak ere sartzen dira.

Berme-aldian, enpresa esleipendunak gutxienez honako betebehar hauek izango ditu:

- Materialen, ibilgailuaren eraikuntzaren edo diseinuaren akatsen ondorioz beharrezkoak diren piezak kargurik gabe ordeztea.

- Matxura edo anomalia jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, 72 orduko (3 laneguneko) gehienezko epean konponketa egitea, Hernaniko Udalak horrela eskatuz gero. Konponketa denbora gehiagoz luzatzen bada, zerbitzua eman ahal izateko ordezko ibilgailu bat ekarri beharko du esleipendunak, matxuratutakoaren ezaugarri berak edo gainekoak dituena, inolako kosturik gabe.

- Diseinuan, fabrikazioan edo manipulazioan egindako akatsen ondorioz behin eta berriz gertatzen diren matxuren kasuan, enpresa esleipendunak akatsak zuzentzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu. Horrela ez bada, berme-aldia luzatu egingo da, akatsa konpondu arte.

Berme horretatik kanpo geratzen dira ibilgailuaren ohiko funtzionamenduaren ondoriozko higadura duten piezak eta kontsumigarriak bakarrik.

Bestalde, aldi luzeagoko bermeak izan ditzaketen elementu eta multzo mekanikoen kasuan, bermealdia zehaztuko da, eta horrek eskulanean, materialetan eta ordezko piezetan, edo guztietan, izango duen eragina zehaztuko da.

7.- LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Ibilgailua udal-instalazioetan jasotzean, enpresa esleipendunak honako prestakuntza-saio hauek eman eta ziurtatu beharko ditu bere kontura:

- Ibilgailua gidatuko duten langileentzat gaikuntza-ikastaro bat. Gutxienez 4 ordukoa izango da eta ibilgailua egunerokoan behar bezala erabiltzen ikastea izango du helburu.

- Mantentze-lanak egingo dituzten langileentzat gaikuntza-ikastaro bat. Gutxienez 4 ordukoa izango da eta ibilgailuaren funtzionamendua, mantentze-lanak eta konponketak ikastea izango du helburu.

8.- SALDU OSTEKO ZERBITZUA

Proposamenarekin batera, esleitzaileak Hernaniko udalerritik gehienez 60 km-ra dituen laguntza teknikoko zerbitzu eta agenteei buruzko informazioa emango du. Gehienezko distantzia horretara tailer-zerbitzua duen zerbitzu ofizial bat izan beharko du.

Ibilgailua entregatzean zehaztuko da aurretik adierazitakoen artean zein den laguntza teknikoko zerbitzua eman eta bermea estaltzeko ardura izango duena.

9.- AURREKONTUA

Lizitazioaren gehieneko prezioa 90.750 eurokoa da (75.000€ + 15.750€ BEZa).

10.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztuko dute:

- Eskaintza ekonomikoa.

- Prezioaren barne eskainiz gero, ibilgailua entregatzeko epea hobetzea: 2025/12/31 baino lehen entregatzeko konpromisoa.

- Prezioaren barne eskainiz gero, berme orokorraren hobekuntza:

    - Berme orokorra hobetzea 2 urte arte.

    - Berme orokorra hobetzea 3 urte arte.

    - Berme orokorra hobetzea 4 urte arte.

- Berme orokorra hobetzea 5 urte arte.

- Prezioaren barne eskainiz gero, pick up ibilgailuaren berme partzialaren hobekuntza:
  - Berme partziala hobetzea 2 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 3 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 4 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 5 urte arte.

- Prezioaren barne eskainiz gero, beso eta saskiaren berme partzialaren hobekuntza:
  - Berme partziala hobetzea 2 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 3 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 4 urte arte.
  - Berme partziala hobetzea 5 urte arte.

- Prezioaren barne eskainiz gero, zaratari buruzko araudia (UN-R 51.03, 2. maila) betetzeaz gain zarata murrizteko beste neurri gehigarriak ere badituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Prezioaren barne eskainiz gero, gidatzeko segurtasun-sistema gehigarrien egiaztagiriak, adibidez, egonkortasuna erregulatzeko sistema, errei-aldaketaren detektagailua, nekeak eragindako alerta-sistema, trafiko-seinaleetarako laguntzailea, balaztatze-laguntzailea, etab.

- Prezioaren barne eskainiz gero, saskia erabiltzeko segurtasun-sistema gehigarrien egiaztagiriak, zehaztutakoez gain.

- Besoaren eta saskiaren kolorea edo, prezioaren barne eskainiz gero, aukeratu ahal izango diren koloreen zerrenda.

Hernanin, 2025eko abuztuaren 13an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Firmado digitalmente por ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Fecha: 2025.08.13 16:02:34 +02'00'

Udal Zerbitzuak Saileko Arduraduna